

Etorkizun lantsua euskal historia pobrearentzat

Pako Sudupe Elorza

Idazlea

Gure herriak ez dauka kondairarik./ Pobre da. Ez dauka/ pirata koxkor pare bat,
langille sofritu batzuek,/ muga zentzungabe asko,/ milla zorigaizto/ besterik. Ez da gutxi.

Manifestu atzeratua (1968)

Azurmendiren liburu bakoitza entziklopedia bat da, jakina denez. Zailena da gaia mugatzea, non jarri fokua eta zer baztertu, obraren oparotasun eskergagatik. Artikulu honetarako Azurmendik landutako gai hauxe aukeratu dut: euskaldunon historia sozial-kultural-politikoaren bereziki espainolekiko harremanean. Hiru liburu hauetan oin harturik: *Espainolak eta euskaldunak* (1992), *Espainiaren arimaz* (2006) eta *Hizkuntza, nazioa, estatua* (2017). Iraganari begira eta etorkizunera begira ere bai. Azken liburu hori biharkora begira baitago.

Euskaldunon historia

Gauza bat zer den ulertzeko, bilakaera historikora jotzen du beti Azurmendik. Berdin bertsolaritza edo euskal literatura edo euskal pentsamendua. Sozialki zer izan den. Jakina, ez historian planto egiteko, baizik eta beste historia bati ekiteko. Eta gezurrik gabe, ez digu gezurrik kontatu euskaldunon historia tristeaz.

Espainol eta are frantses eta italiar eta europarren harrokeria merke askoren berri eman digu, baina gure eliteen eta euskal migratzaileen miseria eta morrontzena ere bai. Aldi berean, gure historiarekiko atxikimendua eta etorkizunean ere euskaldun jarraitzeko gogoaren elikatu digu beraren etsenpluaren bitartez: euskaldunontzat euskaraz idatziz.

Espainolak eta euskaldunak deritzan liburua ezin hobea da euskaldunok geure historiaren harrokeriarik izan ez dezagun, eta *Espainiaren arimaz* espainolek irakurriko balute, beren historiaren harrokeriarik izan ez dezaten.

Gure historiari dagokionez, kontua ez da, edo behintzat ez da horretara mugatzen, XIX. mendea baino lehen, gerra karlistak baino lehen, kasik independenteak ginela Sabin Aranak-eta adierazi bezala –batez ere juridikoki, foru-baimenagatik («men egiten zaio baina ez da betetzen»), eta nazioarteko zuzenbideari begira: oroit 1794an, Konbentzioko gerra garaian, Gipuzkoako Batzar Nagusiek hasiera batean hartutako erabakia, hots,

Espainiatik independizatzekoa-, eta foruak baliogabetzean espainol uztarripen ezarri gintuztela. Hori gezurra ez izanagatik, hots, foruen peko Euskal Herri hura hizkuntza-kultura-ekonomia eta soziologia aldetik Espainia eta Frantzia ez bezalakoa zela, eta Humboldt eta beste bisitari batzuen iritzian, ezberdina eta askeagoa eta igualitarioagoa; ez, hori baino lehenagotik dator gure gainbehera nazionala eta morrontza.

Bai, egia, Nafarroa gaztelauen konkistaz galdu genuen, Aragoiko ‘Errando’ edo Fernando faltsutzailearen trikimailuz, nafar beaumontarren laguntzarekin, baina nafar erregeak eurak izan ziren aurrenak *lingua navarrorum*, hots, euskara, dokumentuetatik baztertzen eta erromantzea erabiltzen; Zuberoako Forua bearnesez idatzi zen, eta Lapurdikoa gaskoiz, eta Hegoaldekoak erromantze nafar-aragoieraz edo gaztelaniaz. Etxeko etsaiak erruz izan ditugu. Esaterako, Lizardi ahalegindu zen, poesiarekin batik bat, euskarari prestigioa ematen, baina ikusten zuen prentsa axola handikoa zela, eta euskal egunkaria burutan ateratzen entseatu zen: eguneroko *xentimoa* galdegiten zuen, zinemari, tabernei eta jolasari ehun ematen zitzaizkion garaian, baina ez zuen lortu diru aski biltzea, eta paradoxikoki pobreek diru gehiago eman zuten aberatsek baino (*Espainolak eta euskaldunak*, 1992: 408); eliteak gaztelaniaren morroi eta mirabe. Kirikiñok gauza bertsua salatzen zuen Bilbon. Hango kaleetan entzuten zen euskara gutzia edo gehiena nekazari antzekoek, baserritarrek, umezainek, inudeek, arrain-saltzaileek eta horretarikoek egiten zutela, jaun usaina zeukatenean artean gutxi edo batere ez: «Egia esan bear bada, orrexek (Jaunak, aberatsak) dauka erru asko euskerea galduaz badoa» (*ibid.*). A. Kanpionek ildo bertsutik:

El enemigo que nos aniquila, el enemigo que pretende borrar hasta el nombre de euskaldunas, el desalmado aventador de nuestras tradiciones, el sacrílego violador de los sepulcros patrios, es enemigo doméstico. Vive entre nosotros. Se llama como nosotros. Pertenece a nuestra raza y familia... (*Ibid.*)

Ez monasteriorik izan dugu euskara landu duenik, eta ez unibertsitaterik –Rodrigo Mercado Zuatzola oñatiar apezpikuak XVI. mendean sorturiko Oñatiko Unibertsitatea salbuespen bat baino ez zen izan; Avilako artzapezpiku eta inkisidore izandakoaren emaitza pertsonala; funtsean, euskal eliteek sostengatu gabea-. Goi klaseak Espainiako Inperioaren morroi izan dira Euskadi penintsularrean, eta Frantziaren, Euskadi kontinentalean, eta euskara baztertzea eta erdarak erabiltzea goi posizioaren marka izan da.

Goi-klaseetatik klase apalagoen izaera, patu eta famara etorritz, XVI. eta XVII. mendeetan euskalduna migratzailea izan da, eta Euskal Herritik kanpo ibili diren euskaldun soldadu mertzenarioek (Italian, Indietan, Flandrian...) edo arrantzaleek, edo fraide, misiolari, kolono, abenturazale, merkatari eta eskribauek-eta, sarri askotan fama txarra izan dute, begitan hartu izan dituzte gaztelauek-eta, besteak beste, gaztelaniaz gaizki egiten zutelako, eta arlote gisa ikusten zituztelako, eta ez nazio bateko herritar gisa. Okerrena da ulertzekoa zela hala hartuak izatea, euskaldunek ere ez zutelako euren nazioa finkatzera eta indartzera jo.

Goi-klaseetara etorritz berriz ere: Elkano, Urdaneta edo Legazpi bezalako nabigatzaile eta konkistatzaileen euskaltasunaren bila ibiltzea, haien euskal ezaugarriak aztertzen ibiltzea Jose Artetxe bat bezala, harrokeria ustela dela adierazi digu

Azurmendik; haiek, ustezko gizandi haiek: Elkano, Urdaneta, Legazpi, San Inazio, espainol inperialismoaren morroi izan ziren. Ez daukagu gure historiaz zertan harrotu; alderantziz, deitoratu behar dugu, eta ez izan XX. mendeko eta XXI. mendeko apologistak, Garibai eta horiek aurreko mendeetan izan ziren bezala.

Zergatik ez genuen euskaldunok Errenazimenturik izan?

Hondarrik hondarreanean, Hegoaldeari dagokionez, eliteak Espainiako errege eta gorteari begira jarri zirelako. Italian, Dante eta Petrarca-eta hasi ziren lehenik, orduan Europako hizkuntza landu nagusia zen latina (grekoa eta hebreera ere prestigiodunak) utzi, eta Toscanako hizkuntza arruntean idazten, eta Erroma inperioa zen garaiko literaturan oinarritzen, gainbehera etorriak gorabidean jarri beharrez; laster, antzeko xedez, gainerako herriak hasi ziren hizkuntza arruntak erabiltzen, erabiliaren erabiliz, eta landuaren landuz, greko eta latinaren bikaintasunera iritsiko zirelakoan. Eta euskaldunak? Iparraldeko Etxepare, Leizarraga eta Sarako eskolakoak-eta, Oihenart-eta alde batera, kultur basamortu!

Hegoaldeko euskararen apologisten, elite euskaldunen ordezkari paradigmaticotzat har ditzagun bi gipuzkoar: Garibai eta Okendo. Esteban Garibai arrasatearra (1533-1599) –izen bereko fundazioaren berri ere izan dugu berriki, Carlos Urkijorekin eta!–. Ekonomikoki estu zela, Espainiako Filipe II.a errege eta enperadoreak liburuzain izendatu zuen, eta kronikari, eta Garibaik esker onez, eta estasiaturik audientzia pribatuan hartu zuela-eta, honako trisagioa eskaini zion: «Dios le guarde. Dios le guarde. Dios le guarde muchos años. Amen». Fausto Arozenak honela azaltzen zuen Garibairen erregezaletasuna: «monarquismo ferviente, mayor quizá que el que constituía la tónica de su tiempo». Caro Barojarentzat, berriz, erregezaletasuna eta inperiozaletasuna eta foruzaletasuna ez zeuden derrigor elkarri muturka; aitzitik, batera gerta zitezkeen, Garibairen baitan bezala: «Que en el siglo XVI se pudiera ser imperialista y monárquico de un lado y partidario de las libertades forales de otro, es algo que hay que admitir, nos guste o no» (*ibid.*: 474).

Errege eta enperadore Filipe II.aren morroi-morroi lehenik, Espainiaren eta Gaztelaren miresle bigarrenik, eta azken-azkenean, euskaldun foruzale. Eta gaztelaniaren lantzaile, eta euskarazko errefra-biltzaile –haren izena daraman fundazioko kideek baino gehiago egin zuen euskararen alde, gutxi eginagatik–.

Eta Antonio Okendo donostiarrak (1577-1640), Miguel Okendo almirantearen semeak, Espainiako Errege Armadako almirante jenerala izatera heldu zenak, espiritu errenazentistarik ba al zuen? Hamasei urte zituela utzi zituen ikasketak eta Napolira joan zen gerrara. Haren seme Miguel Okendok idatzitako biografiaren arabera, itsasoko gduetan heroi izana, hil-hurreneko guduan ere heroi izan zen: egarriz amorratzen sukarragatik, ura eskatzen omen zuen heriosuhar, baina medikuak ukatzen zion. Azkenean, alferrik zela etsirik, utzi zioten ura edaten; alabaina, heroiak urez betetako edalontzia isuri egin zuen, sakrifizio handi hori Jainkoari eskainiz. Erdi Aroko monje bat bezala hil zela dio Azurmendik. Espiritu errenazentista?

Espainolek eta frantsesek erabili, manipulatu, engainatu eta menderatu gaituzte, baina euskaldunok ere ez dugu deus egin euskal nazioa sortzeko, egituratzeko. Garai batean Nafarroako erresuma izateak edota foruak izateak, horrek ez gaitu nazio egiten, eta horretara gonbidatzen gintuen *Espainolak eta euskaldunak* idatziaren amaieran: herrigintzara, naziogintzara, kulturgintzara:

Euskal Herria gaur kontzientziaren ospitale bat da. Gehienok erdi puskak gara: erdi euskaldun, hiru laurden euskaldun. Kaos honetatik zer jendeak irtengo duen, euskal nazio ala espainol azkenean erromanizatu, lanak eta borrokak esango du. (*Ibid.*: 580)

Bistan da jarraitzen dugula zatituak eta menpean, eta botere espainol politiko-juridiko eta hedabide espainolen mundu-ikuskeraren uztarriean, baina horren errua ezin zaio Joxe Azurmendiri leporatu; berari esker gara gaur, besteak beste, bestela izango ginatkeen baino euskaldunagoak, geure nazioaz kontzientegoak.

Espainolen harrokeriak

Euskaldunon miseriekin batean, espainolen harrokeriak eta ameskeriak ere ederki jorratu dizkigu, gorago esan bezala. Azurmendi harritu egiten zen gurean bizi diren eusko-espainolek zer-nolako loriak eta gorazarreak egiten zizkioten Ilustrazioari, XIX. mende liberalari, eta hedabideetan arras zabalduko ideia horien aurka idatzi zuen *Espainiaren arimaz*.

Liburu horretan Azurmendik Menéndez Pidal, Menéndez Pelayo, Unamuno, Ortega Gasset, Madariaga, Sánchez Albornoz, Ganivet, Baroja eta beste hainbat intelektualek Espainiari buruz adierazitako gogoetak jorratzen eta kritikatzeko ditu. Hori guztiak espainol herriaren esentzia bilatu nahi izan dute, aberriaren espiritua, nazioaren arima, arrazaren jenioa... historian agertzen dena baino gehiago historiaurrekoa, berezkoa eta aldaezina, metafisikoa.

Hasteko, nolako iraultza burgesa izan zen Espainiako Independentzia gerra deiturikoa?

Iraultza bat iraganaren alde, dio Azurmendik. Frantses tropek Espainia osorik hartu zutenean, Fernando VII.ak abdikatu zuen Baionan, eta ilustratu espainol puntakoenak antiabsolutistak ziren (despota ilustratuaren aldeko, baina), frantsestak zeuden, eta Josef Bonaparteren kolaborazionistak izan ziren. Frantziar Luis XVI.ari eta Maria Antonietari lepoa moztu zieten; Espainian? Fernando VII.a absolutista defendatu zuten liberal izenekoek. Frantsesen inbasiopean, frantsesen aurka definitu beharra izan zuen iraultzak, eta frantsesa izateak berekin zekarren guztiaren aurka. Iraultza eskuindarra, funtsean, Francorena gertatu zen bezala, aldeak alde.

Álvarez Junco historia katedradunak (Madrileko Unibertsitate Konplutentsean) honela dio:

Resulta difícil negar el predominio de llamamientos en defensa de la religión heredada frente a los revolucionarios ateos, especialmente por parte del bajo clero, a quien los franceses y sus

colaboradores denunciaron desde el primer momento como principal agente inductor de la insurrección. (*Espainiaren arimaz*, 2006: 51-52)

Beraz, esan liteke iraultza espainola kontrairaultza bat izan dela; eta errenazimentu espainolari dagokionez, Kontrarreforma, J. L. Abellán pentsamenduaren historialari famatuaren esanetan (*Historia crítica del pensamiento español*, 7 liburuki).

Azurmendirentzat, 'Independentziako Gerra' deritzana, mitologia nazional espainolaren asmazio bat izan da:

... aitortu beharrekoa ematen du: hasteko, inbasorerik ez zegoela; gero, herriaren altxamendu espontaneo, elizak eta nobleziak xaxatu eta antolatua izan dela; eta, amaitzeko, gerra krudel hori, independentzia gerrarik edo baino, gurutzada erlijioso bat izan dela, Errege Katoliko eta Filipe II.aren tradizio espainolik hoberenean, zer eta «impíos, incrédulos, deístas, ateístas, herejes, apóstatas de la Francia y de la Europa toda», hots, pentsamendu ilustratu-jakobino modernoaren inbasioaren aurka. (*Ibid.*: 51)

Horixe dago, bada, estatu-nazio espainolaren eraikuntzaren hasmentan. Eta haren bilakaeran? Zer eragin izan du estatu-nazio espainolaren eraikuntzak galego, katalan eta euskal nazioentzat?

Garbi azaltzen du, aipaturiko liburuan, zein esperimendu txarra izan den katalan, galego eta euskaldunentzat liberalen asmakizuna den estatu-nazioaren kontzeptua XIX. mendetik hona; izan ere, Antzinako Erregimeneko gorputz politikoa, monarkaren buruan bateratzen zena birpentsatzean, Gorputz Mistikoa hartu zuten erreferentziazat estatu-nazioa Eliza Nazional bihurtaraziz, dogma eta inkisizio guztiekin.

Nazio espainol berriari komeni bezalako historia asmatu zitzaion, hura dohain ederrez jantzirik, batez ere aurrerapen eta progresuarekin lotuz, eta gainerako herrienak mesprextatuz. Orain, nahitaez, espainola izan beharra dago, eta Espainiaren esentzia ez da inoiz katalana, galegoa edo euskalduna, baizik eta gaztelaua.

Estatuko denok kultura eta memoria historiko bakarra: konstituzio bat, hizkuntza bat (beste hizkuntzak toleratu egiten dira, baina bakarra inposatzen, lehenesten, pribilegiatzen, beste guztiak ahulduz eta galbideratuz).

Eta Espainiaren ezina, intelektualena bezala letragabeena, Espainia benetan federala onartzeko. Zer izan da estatu moderno espainolaren sorkuntza Azurmendirentzat?

Gurutzada ohil bat izan da Estatu moderno espainolaren sorkuntza. Berdin erlijioso –orain erlijio laikoaz–, berdin krudel eta suntsikor, berdin dogmatikoa. Eta gurutzadak San Bernardorenak gustatzen ez bazaizkizu, gustatu egin behar ote zaizkizu liberalak? Ideien diskurtsoetako kontrakotasun fikzioaren azpian, intolerantzia izpiritu berberaren ekoizpenak dira Inkisizioa eta gurutzadak, eta Estatu-Nazioa. (*Ibid.*: 10-11)

Estatu-nazio moderno hori etnizista da gainera, nahiz eta estatu-nazio horren apostoluek barre egiten duten nazionalismo periferikoen etnizismoaz. Migratzaileari, paperak eman aurretik, naziotasuna aitortu aurretik, espainola jakitea, lan-kontratua izatea, ordena nazionala onartzea eskatzen zaizkionean, azken buruan, tribukoa izatea eskatzen zaionez gero.

Etorkizunari begira zer?

Azurmendik euskal komunitatearentzat irtenbidea etorkizunari begira planteatu du beti, eta ez historiari begira. Lehen historiaz aritu naiz, baina 1980-1981ean *Argia*-n idatzitako artikuluetan-eta, esaterako, beti berreuskalduntzea proiektu global batean planteatu du, eta euskal komunitate hautsia, desintegratua integrazteko xedez.

Iruñean 2015ean egin zuen hitzaldian esandakoa jasotzen duen *Hizkuntza, nazioa, estatua* liburuan (2017), identitateari eskainitako atalean, galdera probokatzaile hau egiten digu:

Tutera Euskal Herria da?

Identitate nazionalaren atalean, tradizioari atxikitzen zaio eta hizkuntzatik abiatzen da. Galdera horri erantzuteko eta euskal komunitate elebakarraren posibilitatea jadanik irrealizat joz, bai eta ez, dio. Egoera nahasietan erantzuna ezin sinplea izan:

Batetik, nik ezin dut nire naziokoa kontsideratu nire hizkuntzan mintzatu eta tutik ulertzen ez didana, berdin zait politikoki nola pentsatzen duen [...]. Bestalde, ezin ditut berdindu, a) ulertzen ez, baina ulertu nahiko nindukeena, eta b) ulertu nahi ere ez nauena neure hizkuntzan. Edo: a) euskararen komunitatearekin enpatizatzen duena eta horrekin solidario sentitzen dena (ikastolak bultzatuz edo haurrak ikastolara bidaliz, adibidez), eta b) hori bost axola zaiona edo suntsitua ikusi nahiko lukeena. Lehenengoaren kasuan (a) bi ebidentzia dago: 1) ez nauela ulertzen euskal hiztun gisa, eta 2) nirekin dagoela komunitate gisa (hizkuntza bat komunitate bat da, ez gramatika bat eta hiztegi bat). (*Hizkuntza, nazioa, estatua*, 2017: 74-75)

Beste era batera esanda, euskararen komunitatearekin enpatizatzen duten ‘euskotarrei’ edo ‘euskal herritarrei’ justizia egin nahiko lieke, eta deitoratzen du ‘euskotar’ baztertu, eta orain ‘euskal herritar’ opaku hori erabiltzea, eta *Euskadi* eta *Euskal Herria* terminoen egungo nahasketa. EA Eren eta Foru Erkidegoaren instituzionalizazioa baino lehen, kontzeptuei gagozkiela, garbi zegoen Euskadi terminoak kontzeptu politikoari egiten ziola erreferentzia, zazpi euskal lurralde besarkatzen zituela politikoki, eta Euskal Herria terminoak kontzeptu kulturala adierazten zuela, hots, euskararen herria.

Kontzeptualizazio zaharraren arabera, Tutera Euskadi da; ez da Euskal Herria, Euskal Herria izan dadila gustatuko litzaigukeena baizik. Baina Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea, Baiona..., kasik Euskadi guztiarekin ez da oso ezberdina: Euskal Herriaren hondakina da, berreraiki nahi duguna.

Berariaz hizkuntzarena den arlotik, erabat harturik, euskal nazioarena dena etorririk, galdetzen du Azurmendik:

... independentzia nahi omen dugunean, probintzia ekonomiko abantailatsu bat da nahi duguna, hizkuntza eta naziotasun ezberdinetako «nazioen nazio»txoa (Suitza eusko-franko-espainol bat) ala nazioaren askatasuna eta berregintza eta batasuna, hots, nazio bakarra (euskal nazioa), zenbait sakrifizioarekin izanda ere? Independentzia gura duenak –berdin da zein arrazoigatik– ez al da bere eta beretzako aberri bat gura duena? Ala bere aberria izango ez den Estatu bat? (Euskadi bere Estatua, baina Arkadia bere ametsetako aberria: alegia, Madril betiere). (*Ibid.*: 104)

Eta independentziaz?

Lehenik eta behin, independentziaren ideia bestelako Europa baten ideia baizik ez da. Erdi Aro berantiarrean eta humanismoan hasita, monarkia-estatu eta estatu-nazioetan barrena igarota, estatuen Europaren mugak odolez eta krudelkeriaz finkatu dira eta estatu-muga horien «arrazoizkotasun» historikoa amaitutzat eman liteke edota amaitutzat eman beharko litzateke; ikuspegi horretatik, paradoxa ematen badu ere, gurea bezalako estaturik gabeko nazioen independentziaren ideia estatu-nazionalismoen amaieraren ideia da.

Independentziaren alde egoteko arrazoi sendoak behar badira, Espainiari eta Frantziari loturik eta estekaturik egoteko ere bai:

Euskal Herriaren independentzia ez litzateke besterik, gaur Madrilek eta Parisek dituzten gobernamentu tresna berak edukitzea baino (Estatu tresnak), eta beregainki erabili ahal izatea, berari doazkion kapituluetan: burujabetasuna legegintzan eta ordena publikoan, menpegabetasuna Justizian, erabakimen osoa ogasunean zein ekonomian, hezkuntza eta osasun antolaketan erantzukizun propioa, etab. [...] Espainiako eskualdeetako jendearekin harremanak (nahi) dituzten familientzat inolako ondorio dramatikorik gabe, batez ere frontera tradizionalak engoiti zentzurik ez dutela egiaz sinesten bada. (*Ibid.*: 108)

Eta, horrekin batera, diosku independentismoa ez dela aukera bakarra baina bai beste itzaropenik geratzen ez deneko azken esperantza, azkeneko aterabidea. Espainia eta Frantzia hain zentralista eta jakobino izango ez balira, beste planteamendu batzuk posible izan zitezkeen, benetako federalismo edo konfederalismoaren ildotik. Alabaina, Frantzia eta Espainiaren artean komunitate txiki diferentziatu batek bizirik irauteko, separatismoa da salbabidea. Bestela, estaturik gabeko beste nazio guztien bidetik joango da gurea ere andeatzen, desegiten eta desagertzen.

Separatismoa ez da harremanik ez izatea, burujabetasuna baizik:

Ez-dependenzia Parisek eta Madrilek gure zeregin guztietan esku hartu behar horretatik. Ez-dependenzia Espainiako justizia zikin politikotik, Torturaren Barne Ministeriotik. Ez-dependenzia gure lana, ekonomia, hezkuntza eta osasunbidea erabakitzeko. Hoberena guretzat den geuk erabakitzea. Erantzukizuna geurea izatea. Ez-dependenzia, azken buruan. (*Ibid.*: 116)

Azurmendiri eskertu behar diogu historia eta politika eta beste gauza asko geure euskaldun begiz ikusteko egindako lana, eta baliatzen saiatu: etorkizun lantsua dugu, bai, historia pobrearentzat!

JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus